# Nekazaritzako elikagaiak kanal laburretan merkaturatzen dituzten EKOIZLEENTZAKO 2026ko laguntzak

136E/2026 Ebazpenaren (oinarri arautzaileak ezarri eta diru-laguntzen deialdia onartzen duena) laburpen egituratu eta sinplifikatu bat da honakoa, laguntzak ulertzen lagundu eta eskaera erraztu asmoz egina.

Informazio guztia eta araudia esteka honetan aurkituko dituzu.

## ZER DIRA LAGUNTZA HAUEK?

**Hurbileko eta zuzeneko salmentako merkaturatze-eredua garatzen eta finkatzen laguntzeko** diru-laguntzak dira.

## NOIZ ETA NOLA ESKATU?

- **Epea**: 30 egun natural dituzu Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratzen denetik.
- **Lekua**: Soilik telematikoki, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez.
- **Honako hauek erantsi** behar dira:
  - **IFZ** edo **NAN**-aren kopia.
  - **Jarduera-plan** zehatza, jarduera zein balorazio ekonomikoarekin (plantilla eredua errazten da), aurrekontu edota proformako fakturekin, kostuen justifikaziorako.
  - **Kontu eta Ordainketen fitxa**, laguntzak lehen aldiz eskatzen badira edo ordainketa-kontua aldatzen denetan.
  - **Erantzukizunpeko adierazpena**, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituzula eta administrazio-zehapen irmorik eta kondena-epai irmorik betetzen ez duzula adierazten duena.

## KONTUTAN IZAN...

- **Lehentasun-irizpideak:** Aurrekontuak eskaera guztiak asetzerik ez badu, hobe puntuatuko dira despopulazio-arriskua duten eremuetako ekoizpenak, ekoizpen ekologikoak edo kalitatezkoak (BJD/AGB), ekoizleak emakumeak edo gazteak (≤ 40 urte) direnak, edo gizarte-ekonomiako erakundeak diren eskatzaileak.
- **Kostuen moderazioa**: Zenbait gastutarako (hala nola diseinua edo webguneak), diruz lagundu daitekeen gastua mugatzen duten gehieneko moduluak daude.
- **Gardentasuna**: Laguntza emango badizute, hilabeteko epean gardentasun-adierazpena aurkeztu beharko duzu.
- **Publizitatea**: Egiten dituzun hedapen-material guztiek Nafarroako Gobernuaren logo ofiziala eraman behar dute nahitaez.

## NORTZUK ESKA DITZAKETE?

- Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Merkaturatzerako Kanal Laburren Erregistroan **inskribatutako ekoizleak** –titularrak diren pertsona fisiko zein juridikoak-.

## ZENBAT DIRU JASO DAITEKE?

- Laguntzak diruz lagundu daitezkeen **gastuen %90a** biltzen du, **gehienez ere 6.000 euro**ko laguntza onuradun bakoitzeko (ekintza bakoitzak gehienezko diru-laguntza bat markatuta duelarik).

## ZEIN GASTU DIRUZ LAGUNTZEN DIRA?

**2025/11/01 eta 2026/10/30** bitartean gauzatutako ekintzak:

- Ontzien **diseinua**, produktuen etiketa komertzialak, irudi korporatiboa eta sare sozialen logoak eta diseinua (gehienez 1900€).
- Sustapen-ekitaldietan, lehiaketetan, produktu-erakusketetan, azoketan eta kanal laburretAko elikagaien salmenta-merkatuetan parte **hartzerako tasak eta tarifak** (gehienez 250€ ekitaldiko, gehienez 100km-ko distantziara egongo direnak).
- **Dibulgazio eta sustapen-materiala sortzea** (liburuxkak, flyerrak, triptikoak, kartelak, roll-upak, biniloak, poltsak maketatu eta inprimatzea, karpak eta ibilgailuak errotulatzea...) (gehienez 2150€).
- **Merkaturatzea kudeatzeko tresna informatikoak edo aplikazioak garatzea**, webguneak sortzea, egokitzea eta mantentzea barne, kanal laburretako merkaturatze-bereizgarriari atxikita dauden webguneak barne (gehienez 2150€).
- Zuzeneko salmenta-puntuaren **seinaleztapena** (gehienez 600€).
- Publizitate-material, euskarri, salmenta-puntuaren seinaleztapen, liburuxka, etiketa eta abarretan nahitaezkoa izango da **zuzeneko edota hurbileko salmentako logoak** erabiltzea.
- **Ez dira diruz lagunduko** ekoizpen-gastuak, ibilgailuen erosketak, hornidurak (argia, ura), konponketak eta merkataritza-lokaletako inbertsioak.

Diru-laguntzaren xede diren jarduera guztiak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango dituzu.

# Ayudas a PERSONAS PRODUCTORAS agroalimentarias que realicen comercialización en canales cortos 2026.

Este es un resumen, estructurado y simplificado, de la Resolución 136E/2026 (por la que se establecen las bases reguladoras y se aprueba la convocatoria) para facilitarte la comprensión y la solicitud de las ayudas. Toda la información y la normativa las encontrarás en el siguiente enlace.

## ¿QUÉ SON ESTAS AYUDAS?

Son subvenciones destinadas a apoyar el **desarrollo y la consolidación del modelo de comercialización de proximidad y venta directa**.

## ¿QUIÉNES PUEDEN PEDIRLAS?

- **Las personas productoras** -personas físicas o jurídicas titulares- que se encuentren **inscritas** en el Registro de los Canales Cortos de Comercialización Agroalimentaria de Navarra**.**

## ¿QUÉ GASTOS SE SUBVENCIONAN?

Acciones ejecutadas entre el **01/11/2025 y el 30/10/2026**:

- **Diseño** de envases, etiquetas comerciales de productos, imagen corporativa y logos, y diseño de las redes sociales (máx. 1900€).
- Las **tasas y tarifas** requeridas para la participación en eventos promocionales, concursos, exhibiciones de producto, ferias y mercados de venta de productos agroalimentarios de comercialización en canales cortos (máx. 250€/evento a una distancia máx. de 100km/evento).
- **Creación de material divulgativo y promocional** (maquetación e impresión de folletos, flyers, trípticos, carteles, roll-up, vinilos, bolsas, rotulación de carpas y vehículos...) (máx. 2150€).
- **Desarrollo de herramientas informáticas o aplicaciones** para la comercialización, incluyendo la creación, adecuación y mantenimiento de páginas web, incluidos los sitios web acogidos al distintivo de comercialización en canales cortos (máx. 2150€).
- **Colocación de la señalización** del punto de venta directa (máx. 600€).
- En todos los materiales publicitarios, soportes, señalización del punto de venta, folletos, etiquetas, etc. será obligatorio el uso de los **logos de venta directa y/o proximidad**.
- **No son subvencionables** gastos de producción, compra de vehículos, suministros (luz, agua), reparaciones ni inversiones en locales comerciales.

Podrás subcontratar con terceros la totalidad de las actividades objeto de la subvención.

## ¿CUÁNTO DINERO SE PUEDE RECIBIR?

- La ayuda cubre el **90% de los gastos** subvencionables, hasta un **máximo de 6.000€** de ayuda por persona beneficiaria (con un máximo subvencionable por acción).

## ¿CÓMO Y CUÁNDO SOLICITARLA?

- **Plazo: 30 días** a partir su publicación en el Boletín Oficial de Navarra (BON).
- **Lugar:** de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra.
- **Se debe adjuntar:**
  - Copia del **NIF o DNI.**
  - **Plan de actuación** detallado con actividades y valoración económica (se facilita una plantilla), presupuestos o facturas proforma para justificar los costes.
  - **Ficha de Cuenta y Pagos** en el caso de solicitar ayudas por primera vez o haya un cambio de cuenta de abono.
  - **Declaración responsable** de requisitos, de estar al corriente de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, y de no estar no estar cumpliendo sanciones administrativas firmes ni una sentencia firme condenatoria.

## A TENER EN CUENTA

- **Criterios de prioridad**: se puntuará mejor a explotaciones en zonas con riesgo de despoblación, producciones ecológicas o de calidad (DOP/IGP), y a solicitantes que sean mujeres o jóvenes (≤ 40 años) o sean entidades de economía social.
- **Moderación de costes:** Para ciertos gastos (como diseño o webs) existen módulos máximos que limitan el gasto subvencionable.
- **Transparencia:** Si te conceden la ayuda, en el plazo de un mes debes presentar la declaración de transparencia.
- **Publicidad:** Todos los materiales de difusión que hagas deben llevar obligatoriamente el logo oficial del Gobierno de Navarra.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua AGENDA 2030 INTIA